

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2024 000000313

Espediente-zenbakia: 2022/IDA_DEK1385

Xedea

20/2021 Legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako epe luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko hainbat plaza betetzeko deialdiaren epaimahaia zuzentzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saileko foru diputatuaren, martxoaren 8ko 1807/2023, Foru agindu bidez Abenduaren 28ko 20/21 Legearen 1. Xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean Bizkaiko Foru Aldundiak 112 toki-erakunderekin egindako kudeaketa-gomendioen hautaketa prozesuko epaimahaiko kideak izendatu zituen.

Bigarrena: 20/2021 Legearen 6. eta 8. Xedapen gehigarrietatik eratorritako epe luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko hainbat plaza betetzeko deialdiaren epaimahaiaren izendapena plaza bakoitzeko behin betiko zerrendarekin argitaratu zen udaleko webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Hirugarrena: 2024ko urtarrilaren 11ko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saileko foru diputatuaren Foru aginduak honako hau xedatzen du:

“Abenduaren 28ko 20/21 Legearen 1. xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren babesean Bizkaiko Foru Aldundiak egindako kudeaketa-gomendioen hautaketa-prozesuko epaimahaiko kide Jose Arriola de la Vega eta Amaia Aramburu Arriola ordezte eta

Hautaketa-prozesuko Epaimahaiaren ordezeko bokal titularra izendatzea:

- Elixabete Elordi Astegui, funtzionarioa.

Hautaketa-prozesuko Epaimahaiaren bokal titularra izendatzea:

- Joana Goitia Lopategi, funtzionarioa”.

Bermeoko Udalak argitaratutako epaimahaiaren izendapenean Foru Agindu horrek adierazitako aldaketak egin gabe daude; eta, beraz, zuzendu egin behar da.

**Sinadurea eta data**

Argudioak

Bakarra: Herri administrazioaren prozedura administratibo orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 109.2 artikulua zera jasotzen du:

“Las administraciones publicas podran, asi mismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritmeticos”

Beraz, kontuan izanda egitezko akatsa dagoela, artikulua horri jarraiki akatsa ofizios zuzendu daiteke.

Erabakia

Goian aitatutako guztian kontuan izanik, honako hau erabaki da:

Lehenengoa: 2024ko urtarrilaren 11ko Foru aginduan ezarritako aldaketak kontuan izanda, Abenduaren 28ko 20/21 Legearen 1. Xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean Bizkaiko Foru Aldundiak 112 toki-erakundearekin egindako kudeaketa-gomendioen hautaketa-prozesuko epaimahaiko kide izendatzea honako hauek:

- **LEHENDAKARIA**
 - **Maria Uribe Guerendiain**
Ordezkoa: Marta Vielba Postigo
- **IDAZKARIA**
 - **Encarnación Martínez Zamora**
Ordezkoa: M^a Elena Iturrizaga Larrabeiti
- **BOKALAK**
 - **Oihana Ariznabarreta Bergareche**
Ordezkoa: Elixabete Elordi Astegui
 - **Joana Goitia Lopategi**
Ordezkoa: Aitor Ortega Ruiz
 - **Maria Isabel Zarraga Buzeta**
Ordezkoa: Josu Martinez Serrano

Bigarrena: Langileria Sailari Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udaleko iragarki taulan argitaratzeko agindua ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .

